

Iruñatarra eta Osakidetza



**JOSE IGNAZIO
ANSORENA**
TXISTULARIA

Osakidetza osagabe dago, osatuko al du inork? Osatzen duen osatzailea osagile ona izango.

Zalantzan nago Osasunbideara pasatzea komeni ote zaidan. Errolda Beran emanda, agian osasun arretan gora joango naiz. Administrazio antolaketaren gorabeherak. Iparraldean osagile hitzari *zikratzaile* esanahia ematen diote. Zentzu horretan, Gotzone Sagardui aukera ona izan da. Aukeratzailak argitu beharko digu horixe nahi zuen, agian Euskal Herriko batasunerantz jotzearen, edo benetako sendagile izatea.

Alor askotan berdintsu, hedabideak jendartera hain azkar iristen direnetik. Deskuiduan asmo makurra agertzen dute agintariek, lagina hartzeko, eta erantzunaren zain geratzen. Arrapostu handirik ez? Euren bide okerrari jarraituko diote. Trumoiak jotzen badu, disimulua: gaizki ulertua izan da, asmoa ez zen inondik ere horrelakoa... Eta, arazoak muturrera joanez gero, mezularia urkatu egingo dute, garai hobeen zain berriro bide berari ekiteko.

Osakidetzaren arazoak handiak dira, noski. Denok gero eta zaharragoak, gaixotasun larri gehiago, denok heldu nahi bizitzari... Baina garesti gertatzen omen da.

Basurde alprojak bai garesti. Prentsak dio ugaltzen ari direla mendietan

eta hiriburuetara jaisten direla. Berrikuntza soilik lau hankakoei dagokie. Bikoak gure ekonomiaren zutabe direla sinetsarazi nahi digute. Egungo mendealdeko egitura juridikoak horrela daude antolatuta: lotsarik eta eskrupulurik gabekoak dirutzak bil ditzan. Ba al da bidean hilotzik utzi gabeko fortunarik? Ez ahaztu: basurde haragiari, otso hagina.

2023. urtea hasi berria dugu. Zapuztuko al dugu beste guztiak bezalaxe? Orekarako, hona alegoria pozgarria.

Aurtengo sanferminetan ehun urte beteko dira Zelestino Pozueta olaztiarraren *Iruñatarra* biribilketa estreinakoz jo zenetik. Egun, Espainia osoan eta estatuaren mugetatik kanpo ere ezaguna. Musikaren abidan guztiek makurtu behar dute, bestela buruan kankatekoa hartzeko arriskua dago eta, bat-batean, musika saltarintxo hasi eta denek pozarren kalejirari ekiten diote. Txistueta-rako sortu zuen Zelestino lagunak eta pixkana talde instrumental guztietara zabaldu da: txarangak, gaita taldeak, trikitixak... Izenak ere mordoska bildu ditu: *La sequía*, *La escoba*... Fundamentua: *Iruñatarra* bataiatu zuen egileak. Eta parentesi artean: "*El pamplonica*". Osasunbidearen himnorako egokia. Osasun bidean dantzan beti hobe. ●

Galtzea



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Duela urte batzuk Pablo Antoñana ezagutzeko aukera izan nuen. Pablo eta Elvira Sainz, noski. Elvira kexu zen senarra oso desordenatua zelako eta ez zuelako ordutegirik. Desesperazioz eta maitasunez esaten zuen, tamaina berekoak biak. Elkarrizketan geundela galdetu nion ea Interneten ibiltzen ote zen. Ezetz, esan zidan, irmoki. Egiten ari zenaren arrastoa galtzeko beldurrez ez zuela Internetetik nabigatzen. Nik, ordea, maite dut sarreratzea inolako helburu eta xederik gabe. Horrela iritsi naiz Bernardo Atxa-

gari egindako elkarrizketa batera, kontatzen duena zergatik hasi zen poesia idazten, latinezko mezek sorrarazten zioten lilurari esker, dena ez baitzuen ulertzen baina ederra zen entzundakoa. Elkarrizketa horrek Angel Erroren beste batera eraman nau, eta esaldi bat kopiatu dut *Bazka* deitu dudana eta denetatik jasotzen duen dokumentuan: "*Ezin ditut metafora ulertezin gehiegi jarri bata bestearen segidan, argitasuna behar dut: eguneroko hori pixka bat limatu eta dirdirarazi, ahal den neurrian*". ●